

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

4701

EBAZPENA, 2025eko urriaren 22koa, farmaziako zuzendariarena, Zambrana udalerrian (Araba) botikategi bat sortzeko baimena emateko prozedurari hasiera ematen diona.

Ikusi da Zambrana udalerrian botikategi bat instalatzeko eskaera, kokatu nahi den Administrazio batzarrek eskatuta, eta honako hauek oinarri hartuta:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Farmaziako zuzendariaren 2020ko abenduaren 22ko Ebazpenaren bidez, baimena eman zen Zambrana udalerriko (Araba) botikategia ixteko, botikategi horren arduradun M.^a Gloria Andrés Ribón andereak 2020ko abenduaren 3an uko egin ziolako, botikategiak baimentzeko prozedura, baldintzak eta jarduteko araubidea ezartzen dituen azaroaren 28ko 500/1995 Dekretuaren 19.1 artikulua arabera.

Bigarrena.– Ebazpen horretan, Farmazia Zuzendaritzak jakinarazten du bidezkoa dela Zambranako botikategia jartzea.

Hirugarrena.– Zambranako Administrazio Batzarrek, 2025eko abuztuaren 21ean egindako ohiko bilkuran, aho batez onartu zuen botikategia jartzeko eskatzea, udalerrian ez baitzegoen farmaziarik.

Eskaera horrekin batera, dokumentazio bat aurkeztu zen, eta 2025eko irailaren 24an osatu zen.

Laugarrena.– Zambranako udalerria, non Zambranako kontzejua kokatzen den, Arabako Hara-nak II (1.C.AR.07) izeneko C motako farmazia-eremu batean dago, eta honako udalerrri hauek hartzen ditu: Armiñón, Berantevilla, Peñacerrada-Urizaharra, Ribera Baja/Erriberabeitia, Zambrana eta Lagrán udalerriko Pipaón kontzejua.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Botikategien prozedura ezartzen duen otsailaren 21eko 26/2023 Dekretuaren 6.1 eta 11.3 artikuluetan eta Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 319/2024 Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, Farmazia Zuzendaritza-ri dagokio eskabide hori ebaztea.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 25.1 artikulua ezartzen duenez, farmazia-arreta egokia jasotzen ez duten 800 biztanletik beherako udalerrietan, botikategiaren bidez bete daiteke.

Ildo horretan, otsailaren 21eko 26/2023 Dekretuak botikategiak baimentzeko prozedura, baldin-tzak eta funtzionamendu-araubidea arautzen ditu.

Hirugarrena.– Dekretu horren 11.5 artikulua ezartzen duenez, behin botikategi bat instalatzea bidezkoa dela behin betiko erabakita, erabaki hori Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Far-mazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 25.5 artikuluan aurreikusitako arrazoiren batengatik bakarrik alda daiteke, hau da, udalerrian farmazia-bulego bat jarri delako edo botikate-gia jartzea gomendatzen zuten arrazoiak desagertu direlako.

Laugarrena.— Farmazia-bulegorik ez duten udalerriei dagokienez, 26/2023 Dekretuaren 2.2 artikulua ezartzen du botikategi hori farmazia-eskualde bereko farmazia-bulego bati atxikiko zaiola.

Bosgarrena.— Azkenik, 26/2023 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, botikategi bat instalatzearen bidezotasunak ez dakar berez hura sortzea, baizik eta prozedura bat hastea Arabako Haranak II farmazia-eskualdean, Zambrana udalerrian, botikategia baimentzeko.

Horregatik guztiagatik, aipatutako manuak eta oro har aplikatzekoak diren gainerakoak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Udalerrri horretan botikategia sortzeko baimena emateko prozedura hasteko agintzea.

Bigarrena.— Arabako Haranak II farmazia-eskualdeko farmazia-bulegoen farmazialari titular guztiei helaraztea hau, botikategia sortzeko baimen-eskaera aurkez dezaten, egoki ikusiz gero. Bada, deialdiak ezaugarri hauek edukiko ditu:

Instalazioaren udalerria: Zambrana (Araba).

Farmazia-eskualdea: C motakoa, Arabako Haranak II izena duena eta Armiñón, Berantevilla, Peñacerrada-Urizaharra, Ribera Baja/Erriberabeitia, Zambrana udalerriak eta Lagrán udalerriko Pipaón kontzejua hartzen dituen.

Lokala: Solana kalea, 8, 01212 Zambrana, Araba.

Beharrezko dokumentazioa: otsailaren 21eko 26/2023 Dekretuaren 12.3 artikuluan aurreikusitakoa.

Hirugarrena.— Botikategia sortzeko baimen-eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 22a.

Farmaziako zuzendaria,
JON IÑAKI BETOLAZA SAN MIGUEL.